

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado  
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Irugarren urtea. - Pamplona. - Febrero. - 1968. - Otsaila. Iruña. - 24gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

## LEKUNBERRI

Eztakit txorakeria izango den, erriak jendeak bezala direla esatea. Gure erritan, edozein erromeritako dantzarien artean bezala, denetatik ba da: gazte ta zahar, gorri ta txuri, illun eta argi. Zein otzak diren, esate baterako, ezin illez beren bizia daramaten erri gaixoak!

Lekunberri aipatzean, emezortzi urteko nexkatx polita etortzen dakit burura. Festazale eta alai, udan kanpotarrez betea, eta barruti guziak igandetan bereganatzen dituen nexkatx ponpoxa.

Dena argi eta dena kolore. Berdez, belardi eta barruti guzien gona zabala. Gorriz, gure aurrekoen zainetako odolaren lokarria. Txuriz, gure oitura onen iturri garbia. Sokaz inguraturik, belauetik berakoa, lanetik bizi general jakin dezan munduak; eta ezpain gorriekin, zirtzileriak esku mutur eta lepo ondoan, udazale oien azaleko betegarria. Zein polita, Larraun'en, Lekunberri ren aurpegia!


Ezin ukatua dena, Lekunberri izan ditu bere kezak; buru auste aundiak. Bere semeak, ogia agora erematekotan, erritik kanpo joan behar izaten zuten garaia. Baserritako irabazbideak lur jo eta etxe ederrak ustutzen asi zirenekoa Euskera maitea, ema-txar baten aurra bezala ezpainetatik kendu eta lurpean sartzen saiatu zirena. Eriotzean zegon, orduan, Lekunberri...

Zorionez, etzen il. Dirurik gabe eta laguntza eskasarekin, baño, bizinai aundiarekin eman zituen lenbiziko pausuak. Gaur esan dezakegu, Lekunberri'ko semeak ez dutela erritik atera beharrik izango. Lantegiak bertan ba dira. Udazaleak aspalditik ikasia zuten Lekunberriko bidea, ostatu eder eta mendi zoragarri jantzia izango dute. Euskera maitearen barne mina ere biotza ikutzen asia da. Lekunberri, neskatz gazte liraña bezala, bere edertasun guzian esnatu da.

Ez da azal berritze bat bakarrik. Barnean darama odol berritzea. Bere nortasuna galdu izan balu, lur emateko txuriz jazten duten nexkatxaren gorputz ilara bezala izango zen azal berritze guzia. Eta guk dantzari, alai eta bizi nahi ginuke Euskalerrian, Lekunberri.

Bere begietako zeru urdina, urdinago dela esango nuke nik; izarrak ere ba dute Aralar mendi gainean len etzuten dirdira berezia. Ametsa ote, edo egiazko zeruaren poza?

Lekunberri! Euskaldun beti!



## LARRAUN'GO ETXEAK

«Artxueta» tontorrean nago, zutik, neguko egun argi epel batean. Auxe edertasuna!

Goian irukia dirdir zeru urdin batean, batere laño, edo goibel, edo gandurik gabe. Iñoiz balinbada ozkarbirik, oraintxe.

Bean, beste lurralde polit eta mendi garai tartean LARRAUN ibarra edo ballea, eder, zabal, ikusgarri, bere berdetasun orlegia etxe txuriz ta errixa politaz an or-emen tinkaturik.

Ez ditut balleko erri guziak ikusten; baño ongi oroitzen banaiz, ona emen amazazpiak, aspaldi batean zortziko doñuarekin kantatu oi ziran bertso batzutan:

Madoz eta Oderiz, — urbillena [Astiz,  
Andik ni Mugiro'ra — pasatu al [banitz.  
Arruitz'en ere ez daukit — ikus- [teko aundirik  
Aldatz eta Etxarri — ni Uitz'i'n [banintz.



Gorriti ta Azpirotz — urrena Le- [zeta,  
Errazkin ta Albixu — gaua pasa [eta.

Baraibar ta Iribas — Alli begietan,  
Goazen Lekunberri'ra — amazaz- [pi erritan.

Alderdi on asko ditu, izan ere, Larraun'go ibarrak: bere kristautasun bizia, euskaltasun jatorra, ikuspegi eder-ederra, jendearen xalotasun ta gizotasun uka eziñak. Eta nolako etxe ta etxondoak!!

Eztago ongi guk gerok esatea; baño gure errietako etxeak, besteen aldean, egiazko jauregiak ditugu, ziñezko palazioak.

Zoaz mundu guzia barna andikorik ortikora, ta eztuzu bear bada iñon arkituko Euskalerria'n bezelako etxe ederrik. Zerbaiten gatik esaten zaie gure artean etxe jabeai «etxeke jaun» ta «etxeke andre». Euskalduna, bene benetako Jauna!

Ba, etxe ta etxondo eder gai ontan, LARRAUN ibarra joko nuke nik guzien buru ta nagusitzat. Bai apike! Or daukazute, ikuspidez, beste askoen artean: «Goldarazena» edo «Loperena» Aldatz'en; «Etxeberri» edo «Jaundurritzena» Barabar'en; «Ausenea» edo «Juansantzena» Etxarri'n; «Otxokiñena» Errazkiñ'en; «Antonea», «Ipiri», «Garai-koetxea», «Juanmartiñenea», «Zapatanea» edo «Zetzonea» Lekunberri'n; «Otsanbela», «Martinperena»,

«Joanenea» («Orixe» zana azi zuten etxea), edo «Perutxenea» Uitz'i'n. Ta ainbeste ta ainbeste!!

Oiek dira etxeak, oiek!!

Goitsu, luze, zabal, arri gogor bikañez egiñak, atari ta lejo nasaia inguru, armarri ikusgarriak aurrekoaldean; barnetik, ezkaratz, okullu, estrabi, ta gañerakoak; ganbaran sukalea, jantokia, gelak eta beste egoitzak kutxaz, alkiz, zizalluz, ta beste altzari ta tresna zar ederrez apainduak; tellatupean safaiak eta mandioak, selauruak eta belartegi aseak. Denak zorrozpe edo odorrazpi zabal batek babestuak.

Merezi dute gure etxeak, zenbait erritan in duten bezela, aldaberri-tzea, arriya agirian jarritz, zarkera ederra ar dezaten.

Merezi lukete Larraun'go etxe bikañ oiek liburu aundi bat, argazki askorekin, beren edertasunaren ageripidetzat. Merezi lukete, ta noizbait lan ori egingo dalakoan nago.

Etxea! Gure etxea!! Zu zara biziaren iturri agor eziña; zu ezlaroko kabi goxo beroa; zu otoitzaldian elizatxo, lan orduan lantegia, jostatzekean jostalekurik alaiena, gaixoardian sendagailurik bizkorrena, asarrean ezta, negargunean mal-ko oiala, noiznai ta nunnai gizontasunaren gordeleku, gure artean euskaltasunaren estalpe ta geriza.

Agur, etxea, gure etxea!!

«ARTXUETA'KO UNAIA»



# No lo demoremos más

Un artículo publicado en «Nuevo Diario» y reproducido por El Diario Vasco atrae de nuevo nuestra atención hacia un tema importante, al cual hemos solido referirnos en otras ocasiones en estas mismas columnas: la protección de las minorías lingüísticas. En el momento actual las querellas lingüísticas son tema de actualidad en diferentes partes del mundo y, en algunos casos, como ocurre en Bélgica (disturbios en la Universidad de Lovaina; complicaciones litúrgicas en zonas limitadas) y en la India (graves desórdenes y violencias en todo el país en defensa del hindú contra el inglés), llega a adquirir caracteres agresivos.

El mundo socialista no escapa tampoco a esta clase de problemas. En Yugoslavia, por ejemplo, gran número de intelectuales publicaron una declaración en defensa de la lengua croata —no muy diferente de la lengua servia— provocándose con este motivo importantes fricciones políticas.

También las grandes lenguas plantean sus reivindicaciones y defienden su «clientela» cada vez que se encuentran en situación minoritaria.

Así los franceses reclaman la enseñanza de la lengua de Moliere en el Valle de Aosta y propugnan la plena expansión cultural del francés en el Canadá.

La prensa española ha dado relieve, con justa razón, hace unas semanas, a la noticia de que en Norteamérica los niños hispanofonos serán educados en español. España y varios países de Iberoamérica reclamaron asimismo ante la U.N.E.S.C.O. la defensa del español en las Islas Filipinas. Como resultado de ello, la Conferencia General de la U.N.E.S.C.O. aprobó en 1966 una resolución en virtud de la cual una comisión especial acaba de llegar a Manila para estudiar sobre el terreno la implantación del castellano como lengua escolar cuando de alumnos de familias hispano-parlantes o hispanófilas se trate.

En estos últimos meses la prensa española ha dedicado también bastante atención a este tema a nivel peninsular y se han publicado buen número de artículos en defensa de las lenguas locales, es decir, en el sentido de que estas deben ser llevadas a la Escuela para que puedan pervivir y desarrollarse normalmente.

El rector de la Universidad de Salamanca escribía hace poco en el

«ABC»: «Es doloroso que la escritura, la gramática y el dominio del idioma nativo, queden relegados, al margen de la enseñanza escolar, teniendo que improvisarlos privadamente cual si no se reconociera su rango cultural propio».

El señor Salvador, publicaba, no hace mucho, en un lugar destacado del periódico «Arriba» un artículo en el que se declaraba, entre otras cosas interesantes, que «el estudio del catalán, como el del galaico, como el del vascuence, deben empezar en el parvulario, en la normal, en el instituto, porque el idioma es una comunión social y la persona que piensa, siente y habla en dos idiomas tiene dos cultura». El artículo terminaba diciendo: «Por favor, que en un futuro próximo sea una realidad el plurilingüismo nacional como base de armonía social».

Peticiones moderadas y, según creo, perfectamente realizables, han sido elevadas al Ministerio de Educación y Ciencia para que se implante la enseñanza del catalán y del gallego en las escuelas. La Academia de la Lengua Vasca y la Sociedad de Amigos del País han hecho también gestiones análogas respecto del vascuence presentando peticiones escritas y visitando más tarde, en septiembre último, al señor ministro de Educación, de quien recibieron, por cierto, impresiones alentadoras.

Por desgracia, nada se ha sabido después. Sin duda la cuestión está en estudio en los organismos técnicos competentes; pero nada sabemos de ello por el momento. No

quisiéramos, sin embargo, que se echase tierra a este asunto, para muchos de nosotros tan importante.

Este periódico hacía ayer mismo alusión al tema de las minorías lingüísticas en su artículo editorial. Refiriéndose concretamente al problema flamenco-valón, hacía ver el grado de envenenamiento a que se puede llegar en esta clase de problemas. «Nada más fácil —decía el editorial mencionado— en comunidades heterogéneas, para conseguir un acomodamiento razonable y de apacible convivencia, que hallar fórmulas adecuadas».


Puesto que la cuestión no es aquí ni mucho menos, tan complicada, no dejemos que estos problemas se dilaten indefinidamente.

Y si desde el punto de vista técnico o económico existen dificultades, pónganse al habla los órganos del Ministerio con las Corporaciones locales y las instituciones cultas que han formulado peticiones, para obviar rápidamente los inconvenientes que existan. No parece que la técnica de relegar la solución de los problemas difíciles —si es que alguien pensara que este sea un problema difícil, cosa que yo no creo— sea buena en casos de esta naturaleza, porque las gentes se escandalizan y los sentimientos se agrían.

Yo diría simplemente esto: no lo demoremos más.

CARLOS SANTAMARIA

(Donostiko «Diario Vasco»-tik artua).



# Lekunberri'in... zer berri?

Uda azkenean agotan ibiliak dira Lekunberri'ko gora-berak. Gure zaharrak ziotena, «artzaiak asarratu eta gaztaiak agertu». Uda aldean Lekunberri ikusten duenak erri aberatsa dela esango luke; urtearen ondare egunean galdetu behar agintariari...

—Or zegok, ba, koxka! adiskide aundi dut ala mintzo dena.

—Nahi ta nahi-ez, sarrera onak izan behar ditu Larraun'go iri buruak, galdetu diot.

—Bai eta ez. Ez da aberatsa eskutan dirua darabilena, berea duena baizik. Amasei Larraun erriak sarbiderik oberena Lekunberri du. Euenadako berrogei, berak sortzen

dio ballerari. Baño, ez du orrekin ezer egiten. Lekunberri'k burua jatzeko bere dirua behar du...

—Zein da zuen asmorik premia-tsuen!

—Erritarrendako lanbidea bertan sortzea. Orain arte kanpora joan behar izan dute eta orain negargarria da. Ba ditugu bizpauru lantegitxo; baño, ez aski. Txoko polita eta mendi ederak izatea gauza ona da, baño ez da naiko; bizitzeko... lana.

—Zer laguntzarekin kondatzen duzue?

—Guk dugun guzia iturriko ura, eta pilota-plazaren urte saria.

Lenbizikoak berrogei milla peza dakarzi; eta pillota jokuak beste

ogeita bost milla uzten dizkigu. Norra joango gera orrekin?

Perrando Amezketarra eldu dakit gogora; bere pobrea ura ba zuen elgotzan, eta festaz festa jaten zuenarekin bizi zen, nolabeit, gizajoa. Baño, Perrando alperra zen eta Lekunberri langille fina. Langille ona, nola edo ala aurrera aterako da.

—Eta zer esan Lekunberri'ko euskal giroaz? Bere burua urkatu duela entzun nuen lengo batez; ilara delango euskera... Lotsatu egiten direla euskera mintzatze.

—Urkatu ez; lepoa estutu, bakkrik. Gerra ondore artan ba dakizu zer gertatu zen. Gero, erri batzuk izan zituzten beren gizonak; beste batzuk berriz akerrak... Emen gertatu zena leku askotako kanta da: alde batetik bildurra, eta bestetik nor etorri da begien idekitzera? Eta itsua beste itsu batekin balin ba darama...

—Ez al da giro berririk sumatzen zuen artean?

—Bai, naski; eta sakona. Bazter guzitan euskera kontua aipatzen asia da. Alde edo kontra; baño euskeraren kezka. Norbaitek izan dezaken kalterik audiencia etsairik ez izatea da; eta ortako ere balio etzuen gauza bezela jotzen zuten Lekunberri euskera... Ba dakizu zer den illari lur ematea?

—...eta orai?

—Aita ama onen semeak gerala konturatzen asiak gera. Diputazioaren euskeraren aldeko jokabideak ere asko esan nahi du guretako. Nik esango nuke, erri agintarien eta guk baño geiago dakitenean eskuan dagola gure begien idekitzea. Artzai onak behar ditu gure artaldeak. Pozgarri da gure euskal konzintzia esnatzen asten dela ikustea.



ELIZAREN  
ITZA

## Batikanoko Eliz Batzar Nagusiaren ondorenak

Gaurko eguneko zenbait gaztek nai lukete Xristoren Beri-Ona zabaldu eta munduko zoko guztietara sartu, baño ez zoko oiek txukunduta, zikiñak garbituta, zikin guztien artean Ebangelioaren lorea aldatu, ortarako Xristo eta mundua elkarrekin josi ez ditezkenak bait-dira, argia eta illuna lez, illuna bereberean utzita, argia illundu... infernu beltza, betiko sua, negar eta ortz karraska, iltzen ez dan arra gaurko eguneko zenbait belarrientzat gogorregiak baitdira, ordun gauz oiek gutxienez ixildu bear dira edo makurrago oraindik, ez dute esan nai orain arte uste zana, edo ta garai bateko jendearentzat egokiak izan zitezkean, gaurkoak ez dezakete olakorik ausmartu, denboran denboretako jantziak, aldin aldiko oiturak, kafe biziagia deskafeinatu egin bear da, gañerakoan gure kristau erria lau agure zar eta bost atsorekin geldituko da.

Ori ez da, ordea, Xristoren jokera, ori gezurra da, Xristo saltea da ori. Olako gixaasari esango nieke San Joaneke Ebangelio seigarren kapituloan dionez, Xristok Berak egin zuena ikasteke, ona, ogien ugaritze miragarri ura egin ondoan, asi zakioten mintzaten zeruko ogi bat emateko asmoa zuela, mana baño bizkorrago eta zerutik jetxitako ogi ori Bera zala eta Bere aragi ori jan eta odol ori edan bearko zutela. Kafarnaun'go jendetza ura izutu eta ala zioten elgarren artean: ¿nola eman dezaiguke onek bere aragia jateko eta bere odola edateko? «Duruz est hic sermo», ots, gogorregia duk onek dasaiguna ¿nork sinetsi dezake? Xristok legundu zezaken, deskafeinatu zezaken mintzo ura, ¿zer egingo du? Gordinago berriz esaten die? Giza-Semearen aragia jan eta Bere odola edaten ez badezue, ez duzute zuengan bizirik izango» eta Kafarnaitarrak alde egin zioten, apostoluek bakarrik gelditu zakizkion eta esaten die ¿joan nai al duzue zuek ere? eta Pedrok erantzun: ¿norenangana joango gera betiko bizitzako itzak Zuk bakarrik daukazuta?

Elizaren, Eliz-Batzarren, Xristoren itza, naiz gogorrena irudituz, egitatz jasotzen ez dunak, ez dezala uste Xristorekin dagola, sinismenak elizaren atea zabaltzen du.

Olakoendako Paulok Timoteori (2 Tm. 4.3) «Etorriko da garai bat gizakiek ez dute egi osoaren zamik jasoko; belarri atsegin-tzat, berriz, norberaren irrutsen aukerak erakusleak billatuko dituzte eta belarria egitik aldentuz, ipuietara biurtuko dira».

## ESKALERRIKO LEIOA

GURE MADRILGO KORTEETAKO DIPUTADOAK  
FUSKERAREN ALDE

Naparro, Gipuzkoa, Alaba eta Bizkaiko Fameii Diputadoek, au da Euskalerrikoek, eskari bat goratu dute Madrilgo Gobernuari euskeraren alde eginkizunak aurrera eramateko. Zazpi dira euskaltzale agertu diran Diputatuak: Zubiaur eta Goñi Naparrokoak; Arrue eta Eskudero Gipuzkoakoak; Fernandez Palacios, Bizkaikoa, eta Aranegi ta Abella Alabakoak. Eskerrak geron partetik!

BILBOKO «SALA DE FIESTAS» BATEAN EUSKERAZ  
KANTA ETA DANTZA

Bilboko Joseba Gereño lagun maiteak dionez bilbotar «Festeetako gela» batean (erderaz: «Sala de Fiestas») poz aundia artu zuen «Los Daikiris» kantari taldea euskeraz kantatzen ikusirik eta gañera gazte multzo ederra dantzari lotuak zegolarik. Gertaera onek alegatzen gaitu euskerak erdal izkuntzak bezala gaurko kantuaren erabiltzeko balio duelakoz eta baditu ere gatz ta piperra gaurkotasuna izateko.

IRUGARRAN «AGIRRE» SARIRAKO DEIA (SARIKETA)

Mugaz beste aldeko «Euskal Kulturaren Alde» Elkarteak «Agirre» deitzen dan SARIKETA, edo PREMIOA erabaki du berriz antolatzea, au da irugarrera oraingoz. Norgeiagoketa izanen da SARI au, eta ona emen xetasunak:

1967'ko Martxoaren 23'egunean asiko da, eta 1967'ko Marxoaren arte euskeraz izkribitutako lanak gai izanen dira SARIA irabazteko.

Gaiak idazleak bere gain du, SARIA bakarra ta MILLA DOLAREKOA (72.000 pezeta) izango da.

«Euskal Kulturaren Alde»-ko Juradukoek erabakia emango dute, eta berek emandakoa erabat onartzeko izango da ala bearez. Saria ezin berrakatu ditek. Erabakia garaz emana izan dedin, izkribitzaile bakoitzak bere euskal izkribulanaren bi ale bialtzen baditu eskertuko da.

Bialdu zuzenbide ontar: 10, Bd. d'A'sace-Lorraine-64-BAYONNE, eta, 48 rue Singer, PARIS (16), «Euskal Kulturaren Alde» izena jarririk.

EUSKAL AKADEMIAREN 50 GARREN URTEBURUA

Aurten berrogeitamar urte betetzen dira Euskaltzaindia (Euskal Akademia) sortu eta eratu zela. Azken batzarrean «Urre-ertzaiak» egokiro ospatzeko programa antolatu da. Zorionak Euskaltzaindi maitea eta urte askotan irauteko ala nola urtez-urte indartzeko!

DONOSTIN UZTAPIDE BERTSOLARIARI OMENALDIA

Ilbeltzaren 21'egunean Donostiko «Turismo» etxeak Uztapide aundiari Omenaldi bat opa zion. Bertsozaleak «Astoria» Teatroan bildu ziren; leporaño bete zan, denek Euskalerriko Bertsolarien Txapeldunari begi onez txalotutzeko. Bederatzi bertsolari ari ziran eta azkenean gende guzia erabaki zuten datorren urtean «Xalbador» nafar bertsolariari beste ainbesteko omenaldia egitea.

Euskaldunak itzal aundia du bazter guzitan; eta euskera galtzearekin joan da euskaldunaren izatea.

Lekunberri Larraun'go buru! Burtik asten omen da usteltzen arraia. Ez usteldu Larraun'en zu! Fabrika eta lantegi, neskatx polit eta hotel

aundi, aurrera beti Lekunberri. Baño ez gorputzez bakarrik; gorputz eta arima, biotz aundi batekin. Zure aurrekoak bezela, euskaldun beti.

Gora Larraun! Gora Lekunberri!

SAGI

# PAZKUETAN ALEGERENA

Garai batez, Pazko Mayatzekuan (Mendekoste egunean) kantatzen ziren kantu auek. Txuntxuna erretiratzean, inguru aundi bat egin, eskutatik elkar artu eta geldi joanez, au esaten zuten Ur-dia'n'en:

1. — Pazkuetan dan alegereña  
Pazkua Mayatzekua:

Pazkua Mayatzekua zan da  
Jaiki nintzaren goizian,

5. — Jaiki nintzaren goizian eta  
Pasiatzeko kalia,

Pasiatzeko kalia eta  
Egunian edo gaubian;  
Egunian da gaubian eta

10. — Izarra argi danian.

Izarri argi denian eta  
Laztantxuaren aurrian.

Neure lazтана kalean dabil  
Aide aundiak konplitzen,

15. — Aide aundiak konplitzen eta  
Konbitearen emaiten.

Nerori ere konbiaturik nago  
Eztai otara juaten;

Egun bat lagun ikus nituben  
20. — Atal ondoan sartutzen,

Beste orrenbeste edo geiago  
Eskaleretan iyotzen.

Nere laztanen eztai oietan  
Guk jan genduben usoa,

25. — Beste guziak kunplitu eta  
Laztanandako egoa.

Nere lazтана mai goienian  
Ni barrenian egoiten,

30. — Goguak baretz, baretz, baretz da  
Biotzak ez dua laguntzen;

Ark neri gainu, nik ari gainu,  
Alkar gendduben penatzen,

Alkar genduben penatzen eta  
Arimea re lainatzen.

35. — Estudiante barbaillasku bat  
Asi zitzaigun igartzen,

Asi zitzaigun ubartzen eta  
Asi ze-zaigun kargu artzen.

40. — In sekulorum gerta eztailela  
Meza berria ematen,

Meza berria ematen eta  
Epistolaren kantatzen

Epistolia kantatzen eta  
Urre kalizia goratzen.

45. — Estudiante barbaillaskua  
Noiz eman bear dok mezea?

Ire mezearen diruarekin  
Egin bear diat lobeaa...

(Ur-dia'n, 1968)

Azkuek bi lekutan ekartzen ditu kantu onen bertsu batzuk, (Ikusi **Cancionero Popular**, 972 eta 1.027). «Euskalerrriaren Yakintzan» ere (IV, 193; eta 182'an). Sabas Aguirre eta Juana Maria Zufiaurre urdian'darrerri artu dizkiegu besteak.

J. M. SATRUSTEGI

## LEKAROTZEN, 1968-ko Urtatsean Pierre Lafitte Yaun Kalonjeari UZTARITZEN

Nere errespetu guziko Yauna ta adiskide maitea:

Atseginekin irakurri ditut HERRIA astekarian (N.º 901, 1967-ko Hazilaren 9-a) "Xantxo" bertsolariari buruz zuk argitaratu berriak.

"Xantxo" baten izena aspaldian Aita-Donostia zenaren paperetatik ezagutua nuen; eta orai, astekariaren irakurtzean, gogoratu zitzaizkidan ea bi "Xantxo", zuk Bankan eta Aita-Donostiak Arraiotzen bildu hetarik, "Xantxo" bat bakarra egitea beartuak garenetz. Biok nafartarrak, biok mandozainak eta omen andiko bertsolariak... ezta harrizteko izen bereko bi gizon? Zure "Xantxo" gordintze iduritzen zait, egiazki; Aita-Donostiarena, aldiz, zuhurrago ta debot. Baina hauxe erran daike mundu zabalean bere mandoen sokatik tiratuz ibiltzen ziren aumitez.

Ikusazu, bada, Aita-Donostiaren "Xantxo" nolakoa zen:

Bein batez, «Xantxo» bere mandoarekin bazoaielarik, erreka batean sartu zen zamaria. Egin-ahala ari zen gure gizona bere mandoa zulotik atra bearrez; baina dena alferrik. Azkenean erabaki zuen ondoko irira gatea laguntzaren eske. Irirakoan, ustegabea andre xahar polit bat agertzen zaio buruz-buru eta galdegiten dio:

—Norat hoa?

—Iri hartara, laguntzaren eske. Mandoa errekan sartu zaitan, eta ezin atrazi.

—Eztuk hortako irira bearrik; nik lagunduko aut.


Etzuen mandozainak andrearen eskeintzan fidantza andirik; baina «Xantxo» sinetsgaitzago, eta bertzea ekinago:

—Enauk utziko bederen hirekin batean saiatzera, ea sokatik elkarrekin tiratuz erdiesten dugun?


«Xantxo»-k azkenean baietz; ta biok elkarrekin erreki zulotik atratzen dute mandoa.

Gure «Xantxo» han dago, begira hunat, begira harat; baina eztu geiago andrearen arrastorik inguruan atzemaiten. Harritua, ta andrearen irudian Ama Barjina laguntzale izan zelakoan, hasten da kantatzen:


Huna "Xantxo"ren bertsa, bere soinuarekin, Aita-Donostiak 1911-ko Abenduaren 14-an Arraiotzen bildua.



A - ma Bir - ji - ña fi - de - la, a - la - ba - tu - - a ze - ra - la!



Ne - re man - du - - a a - - te - ra ze - la mi - ñi - kan ga - be bi - de - ra.



Xan - grin bat ar - - tu e - de - rra! A - - la kon - be - - ni bi - de da.

Ama Birjiña fidela, (1)  
alabatua zerala!  
Nere mandua atera zela  
miñikan gabe bidera.  
Xangrin bat artu ederra!  
Ala konbeni bide da.

Zer zaitzu iduritzen Aita-Donostiaren "Xantxo" huntaz? Badire oraino Aita-Donostiaren paperetan bertze bertsu batzu "Xantxo"ren gain emanak; deus gutikoak, egiazki. Baina, nork daki? Zure berriak eta Aita-Donostiaren kantuak izan daizke, bearbada, Nafarroako bazterretik "Bordel" bigarren baten sortarazteko lehen urratsa.

Onharzkitzu. Yaun ta adiskide maite, nere goraintzi amultsuenak.

AITA YURGI ERRIEZU-KOA

# SANTA AGEDAREN KANTAK

## ALKATE YAUNARI

Alkate Yauna, legean gatoz  
baimen eskean atera,  
kanta zarrak galdu ezditezen  
lengo oitura piztera.  
Guraso zarren legean pozik  
goaz danok kantatzera:  
Santa Agedak ekarri gaitu  
beorren etxe aurrera.

## ETXEO SEMEARI

Tantai luzeak gerria zuzen  
darama zeru aldera;  
etxe ontako seme jatorrak  
badu maitale aukera.  
Alaba gazte asko dabilta  
zugatit biotzminbera:  
Mutil zartuta bizi izateko.  
Jaunak egia etzera.

## TABERNARIARI

Aspaldi ontan ura garesti  
dabil esne ta ardota;  
mats gutxi izan arren, ardorik,  
ezta palta tabernetan.  
Jesusek ura ardotu bazun  
Kanaango eztaietan;  
orain ikasle azkarrak sortu  
zaizkio ardangelatan.



Se autoriza la copia para la investigación.  
© GOBIERNO DE NAVARRA

## BERTSO BERRIAK

# KALIFORNIA'KO BERRIAK

Berriz ere gure adiskide Migel Mari Baraibar'ek Kalifornia'tik bertso berriak igorri dazkigu eta oraiko huntan ere bere sor-lekuaz oroitzen da, Euskalerrria du bere gogoan eta bere biotzak agintzen dion sendimenduak bertso oken bitartez agertzen ditu:

— 1 —

Milla bederatzia eun eta  
irurogeita zazpia,  
bertso berriak jartzera nua  
izanagatik gaztia,  
azkenak ontsa botatzekotan  
obe da zuzen astia,  
gure Yainkoak bedeika dezan  
eguzkiaren azpia.

— 2 —

Lengo bertsuen asmoz nituen  
pena batzuek agertu,  
oraindik ere zer esanikan  
ni egiten naiz arkitu,  
bakardadean dagon tristiak  
non pentsatuak baditu,  
biotzak duen naigabe ori  
barrenak ezin kabitu.

— 3 —

Lagun maitiak tristura degu  
komeni etzaigun gauza,  
orien berri ez dakienak  
ontsa goguan ar beza,  
zentsurik duen gizona ala  
nundik daiteke urusa,  
biotza Euskalerrria eta  
Ameriketara gorputza.

— 4 —

Gaurko Migelen bertso berriak  
ez dakarkite kalterik,  
nere ondoan ez izanta re  
nik zoritzarra bertzerik,  
egun guziaz ardiaren zaintzen  
malurusikan pasturik,  
geienak infernurako dira  
guk ezpadegu zerurik.

— 5 —

Gure onduan beti dabilta  
kuyote eta leonak,  
orain biztarte gu ez giñaden  
oien artian egonak,  
naiz sinestia lana badaukan  
ok entzutian gizonak,  
berri oberik ezin igorri  
leku txarrian dagonak.

— 6 —

Nere iderak aitortzeko dut  
nik borondate guzia,  
eztaukatela Euskalerrria  
alde batera utzia,  
mundu untako ilusioa  
nola or dudan asia,  
berriz orratat izuli nai det  
akabatzeraz bizia.

— 7 —

Guk badakigu urrun gaudela  
familiarren ondolik,  
oi pentsatzen nigar erreka  
etortzen zaigu begitik,  
urte batzuek ameriketara  
ola ibiliagatik  
eriotzian atera nai det  
Euskalerrriko atetik.

— 8 —

Bertze gauza bat aipatuko dut  
nik asi deten bersuan,  
bertsoak nola jarri nituen  
len ere gaurko kasuan,  
aien ordainak Arotzamenak  
bialdu dazta lenguan,  
zedorrek ezin pentsatu dezu  
zenbat pozturik nagoan.


— 9 —

Arotzamina eskerrik asko  
nere oraingo partian,  
guk ikusiko al degu elkar  
laister egunen batian,  
Jaungoikoari eskatzen diot  
biotza bete betian,  
gu osasunez egon gaitezen  
elkar ikusi artian.

— 10 —

Bertso auekin agortzen ditut  
dauzkadan borondatiak,  
ta naigaberik geiena dauka  
azkenaren ematiak,  
barkatzizue ez-yakinian  
egin baditut kaltiak,  
ontsa bizi ta ikusi arte  
anai arreba maitiak.

Lekarotz'ko Migel Baraibar'ek ja-  
rriak. Abendua 1967.



# BERTSOLARIEN SARIKETA AUNDIA

Lenengoaldiz ORIO'ko «ONENA» Pentsuen Etxeak BERTSOLARIEN SARIKETA AUNDIA antolatu du. Amasei bertsolari aukeratu dira parte artzeko. Nafarroatik Arotzamina, Lasarte eta Xalbador (au mugaz beste aldeko nafartarra); Gipuzkoatik, Uztapide, Lizaso, Lazkano, Lazkao txiki, Mitxelena, Agirre, Garmendia eta Baxarri. Lapurditik Mattin eta Xanpun, eta Bizkaitik Lopategi, Mugartegi eta Azpillaga.

Gure «Errebista» au inprentan prestatzen dan bitartean SARI AUNDI au ospatuko da. Iru leiaketak izango dira; Bi Otsaillaren 4'egunean, goizeko amarretan eta atsaldako lauetan. Probaketa oketan zortzi bertsolari izendatu bearko dira aurrean pasatzeko, eta gero urrango igandean, 11 eguneko goizeko amarretan AZKEN LEIAKETA NAGUSIA izango da.

Donostiko «ANOETA» Frontoi ederrean egingo dira iru leiaketak.

Izugarriko Premioak emango dira inoiz Txapelketan ikusi ezditugunak.

Lenengoak: Eun milla pezetako saria jasoko du. Bigarrenak 50.000. Irugarrenak: 40.000. Laugarrenak: 30.000... Denek izango dute premia. Azkenengo zortziek bost milla pezetako sari bana artuko dute. Arrigarria benetan! Emendik aurrean badu inportantzi aundirik bertsolari izatea, baño orretarako gai nor? Nafarroko euskaldun gazteak: bertsolarietari atxiki, eta bertsolari asi. Euskerak bear du eta zuen sakelentzako onuragarri, emantza aundikoa izan baidateke.

Azken orduko berriak: Bi lenen saioketak pasa tu ondoren zortzi bertsolari ok azkenerako gelditu ziran. Baxarri, Uztapide, Mitxelena, Lopategi, Xalbador, Arotzamina, Mattin, eta Lasarte, eta azken ariketa, otsaillaren amargarrenean ospatu zen leiaketa, alaxe amaitu zan:

Irabazleak: Baxarri eta Xalbador.  
Irugarrena: Lasarte.  
Laugarrena: Uztapide.

# IKASI, MIKASI...

~~~~~

## ¡A Apez «Burugogor» oi kentzen ote diun...!

—Ni naiz Antonio Olloki, telefonoz deitu diotena.  
—Urte askotarako!  
—Jaune, izugarriko desgrazii izanduet eta, orren gañen, naigabe aundiagoa. Ara, baa, zeengati asarre naon. ¡Baño, oso asarre!  
—¿Norekin?  
—Gure erriko apez jaunaakin.  
—¡Ee...!  
—Lotsagarri iruituko zaio, baño oantxe Obispo jaunaangana noaie, ia apez burugogor oi kentzen ote diun. Lenaotik, beorreí aithu nai nioke...  
—Baditeke..., baño gogora etortzen bait esaera zar batek diona: «Bakoitza bere ofiziora, ta lapurre lapurretara...»  
—¿Ordun, beorrek ere, apezai ematen dio arrazoie, nei aithu bai?  
—Mintza, mintza, ze izandu dezun berarekin.  
—Gaur oitabost egun, nee emazteak izandu zun mutiko eder bat. Ez giñun bataiatu biamonin, Franzin den nee anai bat, atheutxitaako, etortzeko asmoan zelako.  
—Egun asko dire; baño, segi.  
—Mutiko sendoa ta sanao zela zirudin. Alaree, bart, iruetan, gaizki jarri zaigu ta etxin bataiatu bear izan duu, il baño lentxeo.  
—¿Ta?  
—Oain, erriko apezak dio, gure kulpez, muthiko gaixoa ezdela zerura joan ta ezin diola ree Aingerun meza kantatu...  
—¡Antonio gizagajoa! Zuk naiko ziñuke nik orain zuri bela arrazoie ematea, baño, aurretik ongi jakin bear det egiz aurre bataiatu dezuten, edo ez.  
—¿Ez giñun baa bataiatuko? Neonek bota nion ur beinkatuu.  
—Itxaron, itxaron pisko batian. Ikusi dezagun, nola egin duzuten. Ortarako, jakin bear degu lendabizi zer den Bataioa, ta nola bataiatzen den. ¿Badakizu zuk zer den bataioa?  
—Jesukristok zazpi Sakramentu jarri zitunen lendaazikoa, Adanengandik datorkigun jatorrizko pekatua kentzeko.  
—Aski ongi esan dezun. Obekio esan genezakegu, bataioakin kentzen direla pekatu guzik —badire zartaroan ere bataiatzen direnak— eta, beraren bidez, Jainkoan familikoak, Jainkoan seme izaten gerala. Gañera, ezin kenduzko marka bat ezartzen digu —imprime character, erderaz esango giñuke—; orregatik ez diteke bi aldiz artu. Bataioak, beste Sakramentu guzik bezala, gizonentzat jarrita delako, ba du bere gai eta egigai —materia y forma, erderaz esateko—, ta sakramentu guztien atari bezala da.  
Orain, beste galde bat. ¿Badakizu zerekin bataiatzen den?  
—Ureekin.  
—Ori da. Ure naturala da bataiatzeko gai bear bearrezkoa: naiz gezu, naiz gazi, au da, naiz iturrikoa naiz itsasokoa; naiz izotz urtua, naiz elur urtua, naiz beroa, naiz otza. Bañan ur nasia ez, esaterako Koloni-ura.  
Eliz bataio aundirako, Larunbat Santuz Bataiarrian bedeinkatzen den ura bear da, ta berez Parroko jaunak, bai beste apaizen batek ere, baita diakonoak ere, bataiatu bear du. Aurra iltzeko zorian badago, ta apaizerik ez, edozeinek bataia dezake ta bear ere, baño —al baditeke biñepin— testigu bat edo bien aurrean, eman zaiola egizatzeko.  
—Len esan dioten bezala, nik bataiatu nun, apezai deitzeko denboik etzeolako. Geo, bai, etorri zen apez jauna, ta esan zigun obe ingo giñula nee emaztik bataiatu bazun, baño erdi erotuta bai zen, ezin zun eutsi ere eskun ur beinkatu ontzi...  
—Naiz azkeneko lekun, gurasoak bataiatu dezakete bere semea; gizonetako emakumezkoak baño lenago, jongoi jakin ezker! Orain, nik jakin nai dutena da, nola bataiatu ziñun zure semetxo.  
—¿Ez diot, baa, esan bota diotela ur beinkatuu burura, piskeat eurtziz, larru busti arte?  
—Ta, ¿esan ziñozkan, bataiatzean esan bear diren itzak?  
—¿Ze itzek esan bear nithion?  
—¡Aaa! ¡Orain, bai, apezaren alde nagoala! ¡Zure semetxo ez duzu bataiatu!  
—¿Ze dio beorrek?  
—Adu dezuna.  
—¿Ez dit, baa, esan beorrek, iltzeko zorian, eozieñk bataia dezakela?  
—Bai, baño, ongi bataiatzeko, bi gauze bear dire: Aurrari ure bota, eta, bataiatzekoan, Jesukristok berak erakutsi zizkigun itzak esan.  
—¿Ze itzek dee oik?  
—¿Ez duzu beñi ere aditu, ure botatzean aurraren burura, esan bear zaiola: NIK BATAIATZEN ZAITUT AITAREN ETA SEMEAREN ETA ESPIRITU SANTUAREN IZENEAN?  
—¡¡¡Alajañe!!! ¡Noizbait aithu izan nun, baño aztuta nitzen!  
—Ola izan eskero, zuen apezak dion bezala...  
—Ta, ¿ildako aurtxoakin, ze in beaduu oain?  
—Apezak, berak, esango dizu ze egin bear dezuten. Seguro aski, zuen kanposantuan ere izango da lekutxon bat kaso oitarako.  
—Jaune, ¡esan beza mesedez! Neria izan baita kulpa guzii, ¿nee semetxo ez da nolabait zerura joango?  
—¡Jainkoak daki! Kontun eduki, Jesukristok bere semetzak artzea eskarrezko grazia dela, au da, iñori zor etzaiona. Berak diagu: SINISTEN DUNA ETA BATAIATZEN DENA SALBATUKO DA (S. Markos, 16-14). Bataioa, badakizu, izan diteke iru eratakoa: urezkoa, suzkoa (martirioa) ta gogozkoa. Azkeneko bataio au izan dezakete pagano askok, fere onean badaude ta gertu badire bear dena egiteko asmoan... Baño, ezagera ez dutenak, ¿nola izan gogo au? Teologo askok amititzen dute beste «misteriozko bataioa» (ekusi, PUNTOS DE CATECISMO del P. VILARINO, n.º 2.569), au da: Jainkoak, denak salbatzea nai badu, bidali dezake aingeruen bat, edo nolabait bataiatu...»  
Oik denak misterioak bai dire, seguroena da aurrek lenbailen bataiatzea.  
—Arrazoie do beorrek. Oaingoakin ongi eskarmentatuta nao. Beste bein gertatzen bazait olakoik, bataiatukoet ¡bear den bezela!  
—Nik, aurretik, esaten dizut: ¡AMEN!

A. ASTIZ ARREGI

## Elizondo'ko amabost aldiko merkaturak, 20

BEIAK:

Aitzinerako beiak, 26.000'tik 40.000 pezetara; esneko beiak, 27.000'tik 35.000 pezetara; migak ernariak, 24.000'tik 28.000 pezetara; aragiko beiak, 26'tik 32 pezetara; aratxeak gizenak, 54'tik 60 pezetara kiloa bizik.

TXERRIAK:

Bi ilabeteko kumeak, 950'tik 1.150 pezetara bakotxa, gizenak bertakoak, 34'tik 37 pezetara kiloa bizik; gizenak «York» delakoak, 41'tik 42 pezetara kiloa bizik.

Yendea aunitz, garai untan lana gutti dulakoz nekazariak. Eguraldi gorriña eta abere gutti merkaturak.

Ez da ageri eske aundik beien artean eta aratxentzat, ortaz sariak pixkat beiti.

Txerrien artean eske aundia dago. Kumeak 100 pezeta goratu dira. Gizenak ateratzen diran guztiak salduak dira, urte azken aldira goratu ziren sariak sendo idukiz. Txerriak orain sari onekin, irabazi onak uzten ditu.

Ardi artaldeak tella azpian daude, euri luzeak izituak, erditzen ari dira. Umerriak Yatekoen Plazara urbil daude.

# Oiantzaleen besta Oronoz'en

Aintzineko urte oietan bezala aurten ere oiantzaleak egin dute beren biltzarrak. Yoan den Ilbeltzaren 9'an Oronoz'ko Maristen Ikastetxean izan da aurtengo billera eta bertzetan bezala oraingoan ere Baztan-Bidaso'ko oiantzaleak elkartasun zoragarrian ibiliak dira.

Goizeko ameketan eman zitzaion asiera bestari. Ikastetxeko sala aundian bildu ziren baso-mutill guziak beren errietako apez geienak lagun zituztela. Erramun Apezetxea yauna Almandoz'ko erretoreak bilgurari buruz itzaldi eder bat egin zuen, mutilleri konseju onak emanez, konbeni zaioten gauzak erakutsiz, beti bide onetik ibili ditezen gurasoak eta sort-erria maitatuz euskaldun zintzoari dagokion bezala. Apezetxea yaunaren itzaldiak bazuen mamia, oiantzale gazteak egi ederrak entzun zituzten.

Gero Lasarte ta Uztapide ospe aundiko bertsolariak aritu ziren. Lertxundi ta Laboa kitarra yoile ta euskal kantari famatuak ere abesti politik erakutsi zizkiguten eta azkenik «apezen kantari-taldea» aritu zen kantaldi ederra eginik. Apez gazte oien kantaldia gustagarria izandu zen.


Goizeko billera egin ondorean, Ikastetxeko elizatzoon Meza ederra aldarean zortziamar apez bildurik. Tomas Otxandorena Saldis'ko erretorea meza emale ta izlari, billerari buruz mintzaldi hungigarria egin zuelarik. Eus-

kal meza ederra unen ondoren, pilota plazan «ameketako» edo «aperitif» bat arturik, denak bazkaltzera.

Bazkaldon Ikastetxeko pilota lekuan esku-uskako pilota partida bat yokatu zuten. Partida polita eta yendearen gogokoa. Azkenik bestari akaballa on bat emateko goizean bezala denak sala aundian bildurik berriz ere bertsolari ta kitar yotzaleen saioa. Uztapide ta Lasarte bertsoaldi ederra eginik entzule guziak xoratu zituzten. Lertxundi ta Laboa ere euskal kanta berrietan agitz ongi. Gero Apezetxea Yaunak denei azken agurra eta eskerrak emanik bilgurari bukaera eman zion.

Zorionak bileraren antolatzaileari. Baztan-Bidaso'ko apez yaunek artzain onak bezala beren artaldea zaintzen dute. Yarraiki yaunak lan ortan euskaldun gazteria beti bide onetik ibili dadien.

ANZANARRI



# Gure «Basamutillen» biltzarrak

## Doneztebe'tik Alpes'tara...

Gutxitan ikusi oi degun jai eder bat izan gendun Donezteben, Ilbeltzaren ogei ta zortzigarrenetan.

Ez du bear bada Doneztebe'ko erriak sekulan ezagutu orrenbesteko jendekearik bertan bilduta. Ez, ez da errex. Ba, biotz aundiko gizon batek, denen alaitasunerako, bañan, batez ere «mendi-mutilleri» eskeindu nai izan zien egun eder ori.

JUAN MARIEZKURRENA, Europa zabaleko lurraldeetan zortziem mutilleri irabazpide onak eskutazten dizkieten gizon esku zabalera degu. Berak ere antxen, lurralde aietan pasatzen ditu illabeteak euskal-mutillekin batera. Zortziem mutill oiek baztarretan andanaka zabalduak egoten dira eta auen lantokiak berak urbilletik jarraitzen ditu; bera da denen buru ta gidari; berak eramatzen ditu egiten dan lanaren kontu ta neurriak. Itz batean, denak daude onen esanera.

Garai batean, Mariezkurrena'ren mutillan lana, arbolak bota ta apaintzeak ziran, bañan, gaurko egunean beste lan klase asko ere egiten dituzte, au da, obra au dietan, bide zabal ta pista audiak egiten ta orrela. Grenoble aldean, Olimpiada'etako pistak ere egin dituzte. Or ikusi, ba, Juan Mariezkurrena'ren lan bikaña.

Laxter eramango dizkigu gure errietako mutillak, eta orregatik, eman nai izan du beste eder ori «langilleak» maite dituelakotz auk berari bezelaxe.

Eta, ona, zenbaterañoeko jendekeak bilduarazi zituen Donezteben: Goizerdi aldera asi ziran karrikak betetzen. Eguraldiak bildur ematen zuen goizetik eri-eri ta eguzkia agitz aul azaldu baizan... ala ta guztiz ere, egun guztian irauñ zuen euri ttanttorik erori gabe.

Eldu zan mezako ordua, amar t'erdietan. Lesaka'ko txistulariak sartu ziran elizara guziekin batera. Eliza bete, bete egin zan. Meza, euskerazko meza ederra. Eskeintzako garaian, «Basarri» jaunak bertso batzuen bidez, eskatu zion Jainkoari

mendi-mutillan alde, eta erriak erantzun zion azkeneko estrofari. Txistulariek jarraitu zitoten mezaeren asieran, sagaran eta azkenean. ¡Benean, uraxe zan ikusgarriko meza! Meza ondoren, kalejira, zortzikoak, irrirtzik, poza ta alaitasuna bazter guztietan.

Gero, BEAR ZANA Pelota-joku tokian: Bost bertsolariak, Uztapide, Lasarte, Lopategi, Lazkao-Txiki ta Aldaz'ek azaldu zituzten beren almenak apustuen asieran ta azkenean. Oso ongi ari izan ziran eta txalo ederrik artu ere...!

ARRI GORATZALEAK (jasotzaileak): URTAIN, Arrona'koa eta ITURRALDE, Aizarnaz'koa. Urtain esku batez eta Iturralde biaz, eun kiloko arri borobilla zenbat aldiz jaso. Ona emen nola: Iturralde'ren lenengo txande, ogei ta amaike jasoaldi. Ogei ta zazpi, bigarren aldiran. Urtain'en lenengo txanda: ogei ta bederatz jasoaldi. Ogei ta bost, bigarren aldiran.

AIZKOLARIAK:

Latasa-Arria gelditu ziran irabazdun, Berekotxea-Astibia'ren kontra. Bañan, oso diferentzi txikiarekin. Irabazi zutenak sartu zituzten ogei zuretari (onborretan), kana-erdikoak, ogei ta amazapi miñuto ta amalau segundo. Galdu zutenak, ogei ta amazapi miñuto ta ogei ta bederatz segundo. Laurak egon ziran bat bezein beste. Agitz onak.

PELOTARIAK:

Arratsaldeko bostetan pelota partidua, Ezkurra-Andueza, Chikuri-Gartzia Ariño bigarrenaren aurka. Ezkurak eta Anduezak aixa irabazi zuten 22-14 geldituaz. Frontoia, leporaño bete zan. Mariezkurrena jaunak «entrada libre» utzi zuen. Gero, azkenean, aari-yokoa. Auxen ere ikusteko polita izan zan. Berrogei ta zortzira kopetako eman zizkieten elkarr. Berdin gelditu ziran. Bata Mariezkurrena ta bestea Zabaleta'renak ziran. Agitz aari biziak ziran. Txistu ta soñuarekin (au gazteen-



tzat) bukatu zan besta eder ura. Aixa aztuko ez dan Mariezkurrenak eskeindutako besta ederra. ¡Zorionak ta eskerrak asko berari.

GORTARI TA UGARTE'TAR YON

(5'garren orrialdetik)

## ARAITZ...

Alakoak dira, emen, Araitz-en gure solasak.

Baña... alaz guztiz, aurrera gozela esango nuke; geldi-geldi, baño aurrera: al deguntxoan etxeak txukundu ditugu..., ikulluk, kurioso lejira», au da, gora ta beeraka, iruznoa bada..., belarra ta garoa ebakitzeko «segadora» ederrak ikusten dira..., aurki, traktoreak ugarituko diralakoan nago..., egutera ta ospelatan, piñua latz landatu da..., zatak utzi ta zapata-botak jazten ditugu... bruxa baztarta ta «gabardina» ugaritzen asia da...  
Aurrera goazela ezin ukatu.

Guzian aurrera joateko, baño, gauz bat da Araitz-en, nere ustez, kontu aundiz ibilli bear deguna.

Gure euskera zar maitea! Etxeko sutondoan gurasoak eta aiton-aman-dreak erakutsi zigutena!! Araitz-en eta Naparro-an, Jaungoikoa-k daki noiztik egiten dan mintzo bikaña!!!

Araitz-ko bi erritan beintzat, neska ta mutiko gaztetxoan ezpañetan, askotxoetan beintzat, oso gutxi entzuten dan euskera!!


Ontan, atzera dijoaz, oso atzera gañera, araitzar batzu-batzuk.

Noiz ta orain, Donosti, Tolosa, Iruña, Aitsasu, ta beste asko ta asko erritan euskeraren alde berealdiko leia ta amoreta sortua dan egunotan...

«MALLOPEKO KUKUA»



# ERRIZ-ERRI.



**LESAKA**

«LESAKA'KO EUSKAL IZOTZA»

Amabiak, benetan, egunero aditzen ditugu. Urte-zar gaba aretako amabi orduak, baizik, gauz berexi bat erran nai ziguten: Urte bat ill zala ta, berrialaxe, bertze bat yayo.

Bai, egitan. Berriz ere urte bat asi degu... ta bertze bat anzteko bidian baduye, ainbeste bezelaxe. Nolakoa izanen ote-dan milla bederatzia eun, irurogei ta zortzi garren (1968) urte au, elkarrari galdetu baño len, azkeneko begitze luzexko bat egin dezayogun ill dan urte ari, nolakoa izandu dan ikusirik: Oroitzen naiz, aren lenbizian asi nintzela, errebista onen bidez, euskal errelduok zuen etxetara eraman naizik. Urte bat, ba, emen idazten

(eskribitzen) asi nintzela, Lesakako mintzaera onetan. Orain, bertze urte bat asitzean, bai-eza ikasi naizik, galdetzen dizuet: Zertarako balio izandu du nere buru berotze ok? Zer-bait atzindu al dut nere lan okin?: Ez gauz aundirik. Ala diot nik... ta, okerragoa, ala diote bertze batzuek ere. «Ergelkariak, ta, ek, gazki», ala zion, lenguan, batek zin-zintan. Izan alttekez egia dan, baño, egia da ere nik al duten guztia egiten dutela... ta geiago ezin dirazue eskatu!

Euskara, Lesakako zulo onetan gorde naizik asi... asi nintzan; Lesakako zol busti oneri itxeki naizik. Bertze batzuek ere, gauz beragatik, ni baño eun milla aldiz zintzoago lanean ari dire. EUSKARA GIBELKA baduye, baizik, batzuen lanak antzirik. Ta, Lesakan beziñ oker ta makal, Euskal-erri zabalean. Zergatik? Zeñengatik?: Guztion gatik!! Orren, aren, onen, nere gatik; DANOKINGatik. Batzuek. Lagunen artean ezgerelakoz euskaraz mintzatzen; bertziak, ez lagunen artean, ez etxean, txikitik ikasi... edo irakutsi etziote-lakoz.

«Etziraten irakutsi»: ezdire gutxi, au erranax, eben burua gordetzen dutenak. Egiz, txikitik ezbalin bazioten irakutsi, gurasoak badute zer-bait ikusi bearrik. Izan ere, erdaraz ikasitzea bearrezkoa omen da ta!! Orretan, arrazoa daukazue: Gaurko egunean, erdaraz yakitea bear-bearrezkoa da, egiz; zeñek erranen dit, bertze borts urten burun, ezdela, Euskal-erri bizi denantzako, euskaraz yakitea ala izanen? Ordu ura etorririk, zer izanen litzake arrazagoa ikasitzeko?: Erdara edo Euskara?

Ezda gauz zoragarria erratea, baño egia da, zenbat gazte (ekin tartean, akaso, ni edo zu) euskaraz mintzatea lotsatzen diren, gibeltasun bat dela siñesten dutelakoz!! Euskara ezda gibeltasun bat. Begitto, bertzela, gizon yakintsuerei: Eben egin-bearrak alde batera utzirik, Euskara ikasten ari dire. Zergatik?: Izkuntza, mingain zar bat delakoz; inguru otan, zarrena, aisa.

Gu, berriz, zoruak bezelaxe, txikitik ikasirik, zabarkeriz anzten!! Gero erranen dugu, or barna: Euskaldun naiz!! GEZURRA, Euskara, zabarkeriz, gu bezela, utzitzen dutenak, edo, gurasoen lekuan, irautsi ez naizik dabiltenak, ez gera ez euskaldun, ez alakorik yosere.

Ze penagarria dan, ainbeste milla urteko mintzaera bat galtzera utzitzea; gure aspaldiko gurasoak utzi ziguten izkuntz bakarra ura ankapietzea. Ta gu, ortxe-ortxen, orixen egiten dugu: Euskara ankapietan zanpatu ta zikiñdu. Bearrik, bai, oraindik Lesakan badirela batzuek euskal iztza au kendu naizik dabiltenak, gorde ta maitatzu, bear den bezela. Oetiki ikasi dezagun.

Aurrera ok... ta AURRERA LESAKA GUTZIA!!

ANTONIO ERKIZIA



**BAZTAN**

ANTXITONEKO TRINKETEAN

Ilbeltzaren 28'an bertsolari besta eder bat ospatu dugu Elizondo'n. Aintzineko iru urte oketan bezala aurtan ere besta hori Antxitoneko trinketean izan dugu eta or aritu dire: Uztapide, Lasarte, Lopategi ta Lazkao-Txiki. Yaz adine yende etzen, baño alare franko poliki bildu zen eta erran dezakegu Baztan'en eskuara zinez maite duten geienak an ikusi gintuela. Euskal yosteta aunitz eta aski ederrak baditugu, pilota, aizkora, arri-jasotzale ta bertze geiago ere, baño oietan guzietan eskuaraz ezkatitenak ere ari ditezke eta ikusliarrak ere mundu guzietakoak izan ditezke, baño bertsolarietan ezta hori gertatzen, emen naiz bertsolariak nola entzuleak denak euskaldun garbiak behar dute izan, ortaz bada bertsolarietza da egiazko euskaltzale batentzat yostetarik maitagarrienetako bat.

Erran dudán bezala Ilbeltzaren 28'an, emen aipatu ditudan bertsolari aritu ziren eta oiekín batean, Klemente gure erriko bertsolaria. Besta ortan erabilitako gaiak aski politik ziren, hunkigarriak zerbitzuz eta irringarriak bertzeak, mun-

# NEKAZARITZA ETA ABEREAK.



**Nekazaritza dala - ta**

Orain artarañoko nekazarien bizipidea erabat aldatu ta berritu bear omen dutela, aditzen degu. Nekazariari bizipide obeago bat iritxi ta eman bear zaiola, auxe izan bear du goi-agintarien erabakia. Erabakiak artzea, agitz gauz ona da, bañan, obeagoa da gauzak egunera jartzea, aginte ta erabaki oien «ondorea» luzaroan ez ikustea baño. Zoritxarrez, oso «gero» ikustera oituak gaude artzen diran erabakien frutuak.

Gutxi gora-bera, deitzen dioten jokabide berri oietako asmoak, aue-txe izan bear dute: aragia ugartu, geitu, asko izaten baita kanpotik erosi bearra; ta lau edo bost urteen barrenean egin bear dela Españin, berregun ta irurogei ta amar milla (270.000) kilo aragitako azinda edo ganadu.

Gaur dauden baño irueun milla (300.000) hektara geiago bear omen dira arto-landetarako; eta, bai ta ere beste seiueun (600.000) milla hektara geiago bear dirala garagara ta oloa ereiteko. Onetaz gañera, berregun ta berrogei (240.000) milla hektara luzerna-landak erein.

Alde guziak jo-ta, nai litzake-ere zazpieun (700.000) milla hektara gari gutxiago ereitea, zergatik, geiegi izaten delako eta onen tokian, beste falta diran gauz asko sortu nai lirake. Masti zati aundi batzuek kendu ta soroak, belartegiak jarri; azi obeagoak ta aukeratuagoak erein, landare ederragoak ta mardulagoak etorri ditezten; zabaltzen dan baño ongari geiago ta abo-nuak eman; lur- lanetarako tresna geiagokin saiatu, au da, makiñaria ugartu, geitu ta abar.

Lur sail-banaketa, au da, lurralde aundiak zatitu eta txikiak bildu, egin bear den lana obeki ta aixago egiteko, au ere erabakia omen dago. Era on-tara jokatzuz, askoz errezago lana egin ta aberastan aundiagok aterako zaizkila lurraldi.

Bañan, esaten danez, malla onetara iritxi ta gero, laueun (400.000) milla nekazari, lanik gabe geldituko diralako bildurra badago Españi barruan, aurrerapen ta makiñari berri oiek diralata langille gutxiago bear izango dalako; bañan, nekazaria, beste edozein eratako langilleak bezein ongi bizitzera iritxiko omen da.

Eta, orain galdera bat: ¿Zer egin laueun milla lanik gabe gelditzen diran oiekín? Ez omen dela bildurtzekoa izango oien etorkizuna, diote «itza» daukaten goi-agintariak. Guzintzat, lan-toki egokiak beste leku batean izango dituztela, diote-ere. Ikusi egin bear... Ori orrela izanean, ez litzake oso gaizki, mesede baizik.

Erabakiak, berez onak, oso onak dira, ¿bañan, noiz ikusiko ote beren frutu-argiak?

GORTARI TA UGARTE'TAR YON

## Bidangotzako ekute on bat

UNA BUENA COSTUMBRE DE BIDANGOZ



(ERRONKARIKO MINTZAERAZ)

Orai dra ein urte obroago Luziano Bonaparte Prinzipea xin zen Erronkarioko uskara ikastra. Bidangotzen erden ztion bi uskaldun agudo. Bata D. Prudenzio Hualde Mayo, iriko abade eta D. Mariano Mendigatxa. Prinzipearen mezua egitako Hualdek uskaraz eskribitu zion S. Mateoren Ebanjelioa.

Berrogei ta amar urte gero Bizkaiko gizon andienen bat, D. Resurrezion Maria de Azkue xin zen eta izaguntio zion Mendigatxa jainari, orduan zar baia uskararen altez lan egitako naiari. Ilabetian bein Bidangotzetik Biñora karta bat erronkarioko uskaraz oiltan zaun Mendigatxak Azkueri.

Karta kuetan anitx gaiza ikastan dra. Amairorgarnean Bidangotzeko ekute baten berri emoitun daikugu erranez: «Biar Ama Berjina Kandelariatzako eguna; bezperak erran, eta portikoan, iriko bezino guzuen izenak isartan dra bapana bere zedule-tan, gero xuntatan tei sonbrero batean; onki errebolbi edo nastekatiareki, deitan dei bi morroin; eta bata erkitan du zedula bat eta emoitau dau apezari; berze morroinak erkitan du berze zedula bat, eta emoitau dau alkateari; biak leitan dei, eta noren izenak erkitan baitdra, bear dei izan xunto; gisa kontan xuntatan da bezino guzua bira-bira; gero faitan dra guzuek askaltra etxe batra eta aigaltra berzeara, gero Santa Ageda egunez, baita konen borzgarnean xuntatan dra pareja berak egun guzuko xan eta edatra; beren artean etxe eslejitau deineara. Lein obliga arazten ztein xuntatra bi pezeta eta libra bat kandraren baktaxaren penan; orai ez dago penarik, xuntatan dra borontate dionak, baia orainore xuntatan dra obroak; anke ez obro ezik aparío baten egitra; leineko zarrer entzuteaz digu, gaiza kaur, isiririk zegola, ankartruk zaudenen bakean isartako; orai ere, erreparatruk dakagu, komunkixe erortan dra xunto, zomait badaude ankartruk edo enu-atruk, eta oboroek egitan tei bakeak, xuntagune kontan. Gaiza koni erraitan diegu urrutxkideak.»

Korrela bizi zren, 1904'gn urtean, Bidangotzeko bizikariak. Ekute on bat zen bakea isartako ezien artean eta bakezko urte berri bat ekuntako. Oraiko soziologoak txerkatan daude kan-kebekentik pakea gordetako egin-bideak. Ene ustean gero irien aintzineko ekuteak beiratu bear tei ketan anitx gaiza ikastan bitra. Kanpotik ekuteak eregu bino lein nola izan dran goreak ikasi bear diegu eta onak balidra berriz artu tzagun.

Hace más de cien años el Príncipe Luciano Bonaparte vino a estudiar el bascuence de Roncal. Encontró en Bidangoz a dos sabios uskaldunes. El uno don Prudencio Hualde Mayo, párroco del pueblo y el otro don Mariano Mendigatxa. Para cumplir el encargo del Príncipe Hualde escribió el Evangelio de San Mateo en vasco roncalés.

Cincuenta años después, un gran vizcaino, don Resurrección María de Azkue vino y conoció al señor Mendigatxa, ya viejo pero deseoso de trabajar en favor del idioma vasco. Una vez al mes enviaba Mendigatxa una carta en vascuence desde Bidangoz a Azkue que vivía en Bilbao.

En estas cartas se aprenden muchas cosas. En la número trece nos da noticia de una costumbre de Bidangoz diciendo: «Mañana día de la Madre Virgen de la Candelaria; dichas las vísperas, en el pórtico, todos los nombres de los vecinos del pueblo se ponen cada uno en un papel y luego se juntan en un sombrero; bien revueltos se llama a dos chicos y uno saca un papel y se le da al cura; el otro chico saca otro papel y se lo da al alcalde; se leen los dos; aquellos cuyos nombres han salido deben estar juntos; de esta forma se juntan todos los vecinos por parejas; después se van todos a comer a una casa y a cenar a la otra; después el día de Santa Agueda, que es cinco días después, se juntan las mismas parejas a comer y beber todo el día; en la casa que ellos elijan. Antes se les obliga a juntarse bajo la multa de dos pesetas y una libra de cera a cada uno; ahora no hay multa, se juntan los que quieren, pero todavía se juntan la mayoría; aunque no sea sino a cenar; tenemos oído a los viejos de antes que esta costumbre se puso para poner en paz a los que estaban enfadados; ahora también observamos que algunos que caen juntos algunas veces están enfadados o enojados y los más hacen las paces en esta reunión.»

Así vivían en 1904 los habitantes de Bidangoz. Era una buena costumbre para poner paz entre los vecinos y tener un nuevo año de paz. Los sociólogos de ahora andan buscando por todas partes los medios para preservar la paz entre los hombres. A mi juicio se debe mirar a las antiguas costumbres de nuestros pueblos pues en ellas se aprenden muchas cosas. Antes que importar las costumbres foráneas debemos mirar cómo han sido las nuestras y si fueran buenas implantarlas.

JOSE ESTORNES LASA

duan eta familien arteko gertakizunak ederki agertu zituztelarik. Uztapide ama alarguna eta Lasarte bere alaba bakarra monja gan nai duena, gai hunkigarrietan. Klemente errotazaña ta Lazkao zakuakin artoa egotzera gan dena eta Lopategi ta Lazkao'n arteko senar-emazten gora-berak, izan ziren gai yostakinak eta irri eginaraztekoak. Bertsolarien saio guziak entzuleen gogokoak ziren eta bestak irauñ zuen ordu ta iru laurdenaren denbori labur iduritu zitzaikun, or ageri baita besta hori gustagarria izandu zela eta gure koblariek badutela erreliste.

IZETA

Urrangoan eta Yainkoa lagun Santiotan berriz izanen dugu bertze bertsolari besta bat eta bertze murririk ezipada an ikusiko ditugu, Mattin, Xalbador eta bi geiago ere. Berri hori denborarekin agertzera emanen dugu eta bizkitartean zain egon gaitezen.



**DONEZTEBE**

SANTALUZIK DONEZTEBE'N

Agitz egura'di txarrakin bañan urteroko jaierekin, pasa gendun Santaluzik eguna. Nik ez dakit Santa aundi onek zer duen, bañan, dakiguna da, bere jai egunean erreka ontako ta beste erri askotako jendearen joera, Doneztebe'rakoa izaten dela. Doneztebe'ko erriak negu aldean duen jaiak «etxekoena», Santaluzi eguna du.

Santaluzi gero joateko baño nor-berre etxean egoteko eguraldi obea zegoen, bañan, santanaren omenezko meza entzun bearrez, majiñabat jendeak Doneztebe'ko bideak artu zituen. ¡Norbaittek erran zuen Santaluzi joan bear zuela...!! Ez da oitura utsa, debozioa ere badago.

Askotan aixta esaten da ta entzuten ere, «juergara» edo ta yostaketagatik duela jendeak joera Doneztebe'ko Santaluzitan. Ez, ori ez da egia; gerokoak-gero, bañan, «meza erdietsi nai nuke», askori entzun izan oi diogu. Begira dezaigun bestela goizeko amaiketari izaten den meza ederrari. Eliza bete-bete egiten da. Euskerazko meza entzuten degu urte guziko partez, zergatik, apez arraio oiek ez dute euskerazko mezik eman nai agindua dagon bezela. Apez oien partetik euskera gutxi altxatuko, goratuko da Donezte-

ben. Gauzak esan bear dira, diran bezela, bildurrik gabe, egia egi den bezela.

Gero, meza ondoren ¡ori bai! «kaberri-tu... sukaldeetan nunnai butakin edo komentario emendik eta andik; Aita Frantziskotar orrek sermoi ederra egin duela, e? I, aizak, bazkaltzeko tokia nun billatuko ote diagu!! Arratsaldeko aizkora apostua, zeñek eramango ote du...!!

Eta, orrelaxe urteak joan eta urteak etorri. Eman deigula Santaluzik beste urte askotan ibiltzeko grazia.

«MALDA ERRERAKO LAU ERRIETATIK»

**ARAITZ**

AURRERA TA ATZERA ARAITZ-EN

Araitz-ko berri ez ba-dakizue, ara emen gu nor geran, esaera zar batek adirazita... Ta «esaera zarrak egik die» egi bada, kontuan artu bearko da onoko «Araitz-ko Epistola» au:

Atallo-koak, baxakak  
Arribe-koak, fantasioak  
Azkarate-koak, adar-jotzalleak  
Uztegi-koak, sesiozaleak  
Gaintze-koak, ezkil-jotzalleak, eta  
Intze-koak, marrajoak.


Aspalditik dakigu Araiztarrok «seiko» onen berri.

Garai batean zazpi erri emen gitan Araitz-en. Betelu (sorgin guzin ikullu) Araitz emen zen orduñ. Bño, aurki irueun urte dirala edo, ballara utzi ta geroztik erri-bakar, erri-berezi, egiten du Betelu-k. Baño, gaur eta aurrerantzean, Araitz bezela joko det Elostapeko gure erri anaia.

Jainkoak daki noiztik bizi geran emen Araitz ontan. Emen ari gera beintzat. Jo ta ke. Udara ta negu. Goiko Jaunak, otaña estalki ematen baitu.

Emen ari gera: Beiak dirala, ardiak dirala, belarrak dirala, basoa dala, Tolosako perian gauzak gora egin dula... zekorra ikullun merke saldu ta aragia arategin oso galezti dagola... baserrin ongi kostatako esnia, merke xamar utzi bear degula eroslerrei... morroi konturik ezin aipatu ditekela...

(4'garren orrialdean jarraitzen du)



# III' gn. idatz leiaketa euskeraz

## Euskaltzaindiak babestua Coca-Cola ta Fanta'ren Ordezkarriak Antolatua

«DIARIO DE NAVARRA» EGUNEROKOAREN LAGUNTZAREKIN

### O Ñ A R R I A K

- 1en. **Euskalerriko edonor Ikastetxetan**, leen mallako ikasketak edo bachiller'ko 1go. ta 2go. urtea egiten ari diran ikasle guziak artu dezake parte Leiaketa onetan. Ingreso, ta bachiller'ko 1go. ta 2go. urtea egiten ta 1955 gn. Lorailaren 1'en ondoren jaiok diran ikasleak A Taldea osatuko dute, ta leen mallako ikasketak egiten ari ta 1959, 1960 ta 1961'gn. urtean jaiok diranak B izendatutako Taldea.
- 2en. **Ikastetxe edo Ikastolak**, Coca-Cola'ko ordezkarrien bidez jasoko dituzte Leiaketa onetako oñarriak, baita ere ikasleak lan aukerak egiteko erabilli bear dituzten orri batzuek, marrazki berezi batzuekin PAN-PIN'en tankera, bainan ezer idatzirik gabe.
- 3en. **Ikasleak marrazki oieri titulua ta oin batzuek idatzi bearko dizkie**, nai dan gaiarekin bainan marrazkiari jarraituko dion ipui bat idatziaz.
- 4en. **Bai A Taldekoak eta berdin B Taldekoak** egindako lan guziak, nor bere ikastolako Zuzendariari eman bearko dizkie.
- 5en. **Ikastetxeko irakasle edo Zuzendariak** izendatutako norbaitek egingo du lan auen arteko aukera, Talde bakoitzeko bi onenak nortzuk diran erabakiaz. Lan aukerak guziak, Talde bakoitzekoak bereziaz, probintziko Coca-Cola'ren ordezkarriari bialiko zaizkie. Oin jartze lan aukerak izenpetzen dituzten guziak, euskal liburu polit baten jabe egingo dira.
- 6en. **Astero-astero, irrati, eguneroko ta aldizkari laguntzalleak Leiaketa onen berri emango dute**, aideatuaz aukeratutako lanak norenak diran eta ze ikastetxetan dabillen. Bearbada aukeratutako zenbait lanen berri ere emango da noiz beinka.
- 7en. **Epailaren (1) 15'an bukatuko da** epea Leiaketaren leendabiziko zatia-rena, eta ondoren Ikastetxe bakoitzean Talde bietatik onenak bezela aukeratuak izan diranak, izendatuko dan leku batean oin jartze berri bat egin dezaten, deituak izango dira. Oin jartze lan au len egindakoaren tankerakoa izango da, bainan epaillearen aurrean egiña. Izendatuko diran Euskalerriko erri guzietan saio au egun ta ordu berian egingo da, baita ere denak gai bera erabilliko dute.
- 8en. Saio ontan idatzitako lan guziak, nork egin dituan esan gabe, Euskaltzaindiak izendatuko duan epaillearen eskuetan jarriko dira. Epaille aukerakiko dute, probintzi eta Talde bakoitzeko amar oin jartze lanik onenak zeintzuk diran.
- 9en. Probintzi bakoitzean aukeratuak izan diran oin jartze lanak, bai A Taldekoak eta berdin B Taldekoak, denak alkatuko dira ta berriro Epaillearen (1) eskuetan jarri, Euskalerriko osoan Talde bakoitzeko oin jartze lanik onena zein dan erabakitzeke.
- 10en. **Sarien zatiketa «VIII Concurso Nacional de Redacción»'ekoakin batera egingo da**, aurrez jakin araziko dan egun eta lekuan. Probintzi bakoitzeko 9 Taldearen sariak oek izango dira:
  - 1a. Tocadisco eta euskal diska sorta bat.
  - 2 etik 10a. Euskal liburu sorta bat.
 Probintzi bakoitzeko B Taldearen sariak oek izango dira:
  - 1a. Tocadisco eta euskal diska sorta bat.
  - 2 etik 10o. Euskal liburu sorta bat.
 Euskalerriko osoan artean eta Talde bakoitzeko oin jartze lan onenen egilleak, aste bete iraungo duan ibillaldian, prantzi aldeko Euskalerria ikusteko saria izango du. Bi ikasle aukerak beren ikastetxeko irakasle baten laguntza izango dute.
- 11en. Epaillearen erabakia onartu bearrezkoa izango da.

(1) Epaila, Martxo.

### «Principe de Viana»'ren oharra.

Badakizue bada Nafarroko euskal errietako Apez, Irakasle, Maisu, muttiko eta neskatikoak aruten EUSKALDUN NAFARROKO ESKOLATEGIETAKO MUTTIKO ETA NESKATIKOAK parte artu ahal izango dute «IDAZ ZEINGIGEIAGOKETA» ontan. Denak kasu oni...



### LARRAUN-GO KONTU ZAR BAT

Eziin ibiltzen ren gue nausii ta... bein ekarri zun belee; beste bein, katagorri... ta gero, puska batean etzun geio ezer ekartzen. Ta, nik:

- Oain'e ez'tu deus ekarri?
- Eztut'pa ekarri!
- Bueno, bueno...

Ta gero nausii uxoa ekarri zuniin, ni enitzen etxiin, euntzin eo nunbait nitzin-da. Etorri nitzeneen esan tziin:

- Oain ekarri'ut pa usoa, Joxepa!, esan tzeen, ta.
- Bai?... ola, ola!, esan nion da...
- Ekarri iezu ikusteko. esan tziin da... da etxeoandreak esan tziin:
- Nik jaso'et da daonian daola! ...ta orduko, katuek emana euki!! Etxekoanderak bazakin... biamonian jan bear zun nausii uxoa ta, nik esate'nion:

—Oain ze'in beau... errixatuko'u ta...

- Ba!!! ...ollaxkoak bazeuden etxiin, ta ollaxkoa paatuko ziola!
- Bueno, ba...

Ta biamonian ze'in giñin? Ollaxko'at il da lumatu... ta paatu zun gixatuta, majo, kaxuelan, da, jaten asi zeneen nik ate(r)a nai... ta etxeoandreak esan tzeen:

- Ez aiz ate(r)a ta enitzen atea...
- Aixe ezautuko du esate'nion, ta...

—Eztu ezautuko, ikusiko uzu, ez-tu ezautuko ta... aizen jaten da etzun deus esaten! Geo, etxeoandreak esan tziin:

- Goxoa dao?... ta.

—Bai. Oso goxoa dao. BASA-KE-RA PIXKOAT BA DAUKE, BAI!!! baño oso goxoa dago!!! Utziko iziti pixkoa! da... utzi zigun, da ni, ate(r)a sukaldeti ta ukulle jua nizen... Naiko parra au ein nun! Nik enun uste arrek ezagutuko etzunik ta... batez ezautu!!

1967 Larraun'en.

Jesus Elozegi-k jasoa



SALDIAS

### ERRIKO GORABERAK

Esne beiak poliki poliki sartzen ari dira gure erriko soroetan. Denok oso ongi ikusten dugun gauza da, alegia, Bizi bearrak orretara beartzen gaitu: Gaur egoki diran gauzen jabe egitera. Baño esne bei oien jabe egitean dirua pil aundiak utzitzen baidira. Arrisku aundiaren jabe egiten baita erostuna, esne bei aukerak balio gaitza dutelako. Lan onek kontu aundia eskatzen du. Askotan saltzalleak berak ezbaide jakiten zer eratako azinda den, saltzera ateratzen. Lan ontarako oso ongi etorriko litzake dakiten kontsejua. Orregatik ez ote litzake egoki erostean konfiantzeko albaiteko bategen beia ikustea eta aren iritzia entzun ondoren tratua akitzea? Askotan jitu baten gezurrak egiten balio izaten du guretzat konfiantzeko gizon baten egiazko baño.

Gaiñera, denok dakigu munduan on geiago egin duela jakiteak, ezjakiteak baño. Guri ere etzaigu komeñi, azindak nola moldatu, dakigun baño zerbait geiago ikastea? Oso bearrezko dugu dakinaren erakutsia. Berak begiak asko irikiko litziguke eta ditugu puskari, ezdago dudarik, on geiago kenduko genioke.

Zergatik ez, negu bidean, gauz oiek denak azaltzeko, dakien gizonen bat edo albaiteoren bat ekarri itzaldi batzuek egitera? Zergatik denok geiago ez alkatu olako zerbait egiteko? Nik uste eznebei erosten boto dituzuten diruak zerbait merezi dutela.

### OTSAILAREN APUSTUA

Eskualdunok ez gera Otsailaren lagunak; gauzak diren bezala. Begitan artua dugu eta kitto! Nik ala uste nuen, beintzat; baño ez omen da ala. Bera omen da, izatez, alako kazkarra. Bere lagunekin ere ez omen zen ongi konpontzen...

Lukas'ek kondatu zidan lengo batez. Laurogei ta zazpi urte betetzen zituen egun artan eta bera baño askoz zaharroi entzuna zien kontu au:

Esan dena, otsail txar ori izaten omen zen jokalaria eta juergistia, pare gabia. Uste zuen bera bezalakorik etzela munduan eta beti desapioka bere lagunekin; beti faltatzen.

Asieran barkatu egiten omen zioten besteak, adinarekin edo gizonduko zelakoan. Baño, beti ta makurrago; beti ta gaiztoago.

Azkenean, ase zituen nunbait eta ortzak erakusten asi zaizkioten. Jokalari aundi bezain gaztalez txarra izan behar zuen Otsaila eta, berekin zituen guziak galdu ondoan, egun bat jokatu zion Ilbeltzari, eta galdu. Orduan gelditu zen ogeita bederatzigunekin.

Ala ere etzegon beretan. Len iruak berdinak Ilbeltzak. Otsailak eta Martxoak ogeita amarna egun bai zuten iruak; eta orai berak egun bat gutxiago! Ez; ori etzegok ondo. Nolabeit bilatu beharko diat beste egun bat.

Ilbeltzak bildurra sartu bai zion, Martxoarekin asi zen zitaka. Etzion pakarik ematen.

—Utz nezak geldirik, nahi ba duk beintzat! —esan zion Martxoak. Len bat eta, ia gero bi galtzen ditukan!

Etzion batere ajolarik, eta azkenean behartu zakion Martxoari egun bat arekin jokatzera. Eta berriz ere Otsailak galdu... gelditu zen ogeita zortzigunekin bakarrik.

Umildu omen zen, bai, umildu! Baño, nolabeit lau urtetatik egun bat sobratzen den, ura itsasi zioten Otsailari «ez ain baju gelditzeatik».

Igual zen bai, beste bana ere kendu ba liote!

Txikia baño, len bezain kazkarra segitzen du Otsailak.

Urdiain'go Lukas Zufiaurre



ATERALDIA

Aita-suiak bizi omen ziran etxe batean.

Aita lana utsa omen zen. Suia, berriz, alperra baño alperragoa.

Aita-arrebari su ematen omen zion suia ola ikusteak eta alako batean asarre-asarreak au botzen omen dio: «Alperrak iñun gauz onik ez».

Eta suiak bereala erantzun omen zion: «Langilleak beti eziñ egin naiko».



## Iruñe'ko Seminariotik igorritako karta

«Principe de Viana»-ren Jaun agurgarriak: Seminarioko apezgai euskaldunak egiazko penarekin ikusi dugu euskera eta euskeraren aldeko arazo guziak oso baztertuak zeudela gure Seminarioan, azken urte auetan ez baita ezer egin; eta egoera triste au ikusirik, konzientziaren deiari erantzunez, apezgai euskaldunak au konpontzeko asmoz batzar bat egin dugu. Eta batzar ortan artutako asmo eta erabakiak adieztara gatozkizue zuen baime-narekin.

Lenengo ikusi gendun lanean gogotik asteko bear bearrezkoa giñuela gela bat gure lanak eta batzarrak burututzeke. Gure zaindariak bereala eman zituen; baita ere bertara euskal liburu guziak eramateko baimena ere.

Liburu oiek aztertirik, txarrak ez, baño bai zarrak direla ikusi dugu, eta lanerako bear bearrezkoak ditugun liburuak falta ditugula ikusi dugu pena aundiarekin.

Oñarri onekin asmo eta erabaki aukeratu genituen:

- —Jakintza aldetik: gure izkuntzaren egoera, eta gaur zutik egon dedin, bideak billatu nai ditugu; gure izkuntza bear dan mallan, naiz eleiz naiz jakintza eta beste salletan jarri nai dugu.
- —Euskal gaietan oso atzeratuak eta ezjakina gaudela ikusi dugu; orregatik gure jakintza txiki ori ugaritzeko asmo batzuek artu ditugu: euskera ikasi, euskeraz irakurtzen eta idazten saiatu, eta asmo aukerak egitera iristeko, aldizkari txiki batean agertzea.
- —Euskal giro goxo bat sortu seminario guzian: berez euskaldunak, beren izkuntza jarraitu eta landu dezaten; erdizka edo ez dakitenak, ala nai badute, ikasi al dezaten.
- —Astero meza bat izango dugu biako egunerako prestatzeko asmoz.
- —Igantzen euskal errietara atera nai dugu jendea eta erria osoki ezagutzeko: bere oiturak, bizi modua, problemak, eta auen soluzioak eta abar.
- —Bere anima ezagutu: dantzetan, folkloren agertalde guzietan eta bai ta ere euskal kiroletan. Ortarako apezgai txikien artean bai dugu dantzari talde bat eta txistu ikasle sail koskor bat, eta aundien artean txistu banda osoa egin nai genduke baño txistu aundia eta atabala falta.

Azkenik asmo aukerak ongi pensatuak dauzkagu eta gure eskuetan dugunarekin asi gera lanean.

Asmo aukerak errealdade izan ditezien eta betirako bidea ideki dezagun bear bearrezko dugu laguntza; eta orregatik zuen euskeraren aldeko maitasuna ikusirik, zuen ontasunetik laguntza onen eske gatoz.

Eta ona emen gure gastu bear-bearrezkoen kontuak (momentu ontan ezer gutxi bai daukagu gure eskuetan):

|                                                                   |            |
|-------------------------------------------------------------------|------------|
| Euskal erriko aldizkari onenetara suskribitu gera, Bere saria ... | 2.000 Pta. |
| Liburu bear-bearrezkoak ...                                       | 6.000 Pta. |
| Euskera ikasteko ikastaldia ta tokadiskoa ...                     | 6.000 Pta. |
| Itzaldiak, kursilloak antolatzeke eta abar ...                    | 2.000 Pta. |
| Gure «Centro de estudios vascos» prestatzeko ...                  | 4.000 Pta. |

Emendik eskerrak ematen dizkitzuegu gure lanerako emandako laguntza gatik, eta zuen baitan jartzen dugu gure uste oso-oso.

Jaungoikoak eman dezaigula euskal alorrean saiatzen geran guziok urte berri zoriontsu bat. Kristogan beti

«Zuen Iruña'ko euskal apezgaiak»

«Principe de Viana»'ren Mezua.

Pozez eta atsegin aundiarekin au esan dezakegu: Nafarroko Diputazioak, Iruñeko euskal apezgaien eskabidea onartzu, eta euskeraren aldeko gogo eta zaletasun egizko eta beroa ikusirik, eta «Principe de Viana»'ren «Euskeraren Aldeko Sailla»-ren aholku eta iritzia jarraiturik, OGEI MILLA PEZETAKO LAGUNTZA Iruñeko Seminarioan dagon «Centro de Estudios Vascos» delakoari emateko erabaki du.